

Kartzel aroa.

A)Zergatiak

- :1)diktadura, inkonszientzia edo jakifaren gañearen eza: 16 urte arte ezta sumatu ere, bildurra edo ixiltasuna, Frankoren gerra edo erromatarren gerrak berdin, libertateak ezta aipatu ere, berdintasuna berdin edo haundiei begirunea, solidaritatea karitasen esku, dena erligio maltzur batez estalita
- .2) Errepresioa: ausartzen zirenei regimena kritikatzeko zutenei desterrua (Karmelo Iturria, Javier Garmendia...), langilegoaren aulezia sindikato faltan, euskeraren bazterketa (11 urterekin erderaz jakin gabe eta 14 urtetan euskeraz kostaz egiñez, Aita Gandiaga erdal irakasle), askatasun politikoaren eza: Joseba Elosegui, Guipuzko eta Bizkaiko estatu bereziak edo "de excepción",
- 3)Kubako Iraultza 1960an, Juan XXIII eta Vatikanoko Kontzilioa.....
- 4)1960an nobiziadorea, Moises eta Kepa Embeita, Aita Zelaia: "politika madarikatua", kubatik etorritako gaztea nobiziadorea: "Somoza", Kubatik botatako fraideak 1960an, fraide antikastristak eta Kastroren aldekoak.....
- 5)Obedientziari buruzko eztabaida: "azak buruz bera landatu?" ,.....
- 6)Personai eraginkorrak teologi garaian (1965,66, 67 eta 68): Aguirretxe (Kompromisua behartu guztiekin), Joxe Goitia (teologi berri eta askatzaile baten alde), Joxe Iturria (Mezak kristauen asanbladak...),Villasante (euskal taldeak , "Axularren Geroa", Jakin aldizkaria...),alkoholismoari buruzko hitzaldiak.....
- 7)Guipuzkoako estado de excepción, Martxa-protesta Arantzazutik Oñatira, Ikurriñak Arantzazu aurreko mendietan, Fray Vixente eta pintxoak.....
- 8)Apaiz ordenatu ondoren Agilerako konbentura mentalidadez aldatzeko edo, Vixente Garmendia desterratua sermoi batengatik, Felix errepublicanoa.....
- 9)1969 maiatzak: Bilbora, Harino Panadera, Bolibiako Kopakabanara joateko agindua, Errekaldeberriko Anaidia, Harino Panaderako Menoyo eta langileak (Luis Olabeagakoa),
- 10) Burgosko epaia, kaleko protestak, apaizen plantoa Derion, Zulaika, HOAC, San Antonio auzoa.....
- 11)1969 azaroak: Bilboko Portuan lanean, Komandantea, langileak, lanerako zerrendak.....1970ko martxoa, Zorrozaiko mataderoa, arduradun katolikoa eta bere negozioak animalien tripakin.....
- 12)1970ko irarilan, Busato, Mazuela anaiak, HOAK, HOAKEKO gazteak (Julian Abad), Maria la Reinako Parroquia, multikopista, Galdeanoko Kuartelea.....
- 13) ETArekin zatiketa: ETA VI eta ETA V. Eztabaidak. Alemaniko konsularen bahiketa (Beil)

B) Detenzioak eta Kartzelak:-

1) 1972ko otsailan edo martxoan. Detenitua Busatoko langile guztien aurrean. 5 egun Indautxulo komisaldegian. Torturak: irainak eta golpeak, flexioak, Polizi baten HOSTIA. Añoverosen ezetza ni prozesatzeko.

2) Basauriko kartzelara beste kartzelatuekin batera. Bi illabete? Zeldako lagunak: Llona eta Gazteñaga, kartzelako beste kide batzuk: Jon Idigoras, Chato Arteché, Iturbe, Zabalo, Balbin, Larrazabal, Egiluz Anaiak, Internacional Komunistako bat... eta hórrela ia 70 persona ia denak Bizkaiko eskualde desberdinetakoak.

3) Carabanchelgo espetxera. Proceso 1001n prozesatuta zeudenak: Camacho, Sertorios, García Salve, Fernández Iganzo asturiarra eta guerrillan egondakoa (kartzelan ia 20 urtez).....

4) 1975, maiatzak (¿), bigarren aldiz detenitua, Indautxuko komisaldegian, etxean, torturak: meatxuak, iraiñak eta golpeak, 4 metroko zelda berean 6 gizon koltxoirik gabe. Egun haietan detenituak: Tasio Erkizia apaiza (hospitalera eraman zuten torturatu ondoren) eta beste 80 bat persona, Goiburu ETako buruzagia erori ondoren. Burugañezka komisaria. Mondragongo gaztea gero erbestean poliziak edonon ikusten zituena bere buruarekin beste egin arte, Manu Aranaga bezala....

5) Berririo Basauriko Kartzelara, baiñan honetan apaizendako bakarrik prestatutako gelan, patorik gabe, bertan lo eta janez. Kartzelako kide batzuk: Txomin Iturbe Ibarruriko parrokoa, Luis Amiano durangoaldeko parrokoa, Busturiko parrokoa Javier, Fernández Apaiz Langilea, gose greba 20 egunez Txiki eta Otaegi defentsan.....

6) Espetxetik atera orduko ihes egin beharra, Hidalgo Kapitaina nere atzetik zebillelako. Erbestera bidean: Estibalitzko konbentuan (han jakiñerazi zidaten Franco Hil zela eta ez nuen ikusi negarrik fraileengan, alderantziz...). Leireko Beneditarren Konbentuan (han zegoen Esteban Irigoien, Lizarrako San Juan parrokoiko parrokoa, desterratuta sermoietan zerbait esateagatik). Handik Done Palaisko Franziskotarren konbentura (han egon nintzen 4 edo 5 hillabete Españiko egoera zerbait aldatzen ari zela ikusi arte, bitartean kontaktuak egiñez beste aldeko jendeekin Anai Artea zela medio).

7) Bueltan etorri ondoren berririo detenitu zidaten Urquiolan lagun batzuekin nengoela pentsatuz garai hartako sekuestro batekin lotuta nengoela. Bi egun pasa ondoren utzi zidaten pakean.

C) Militantzia politikoa.

1) Garbi neukana: apaizek matematika edo izkuntza bat irakasteko ez badute arazori ez legalik ezta teologikorik, zergatik GIZARTEA HOBETZEN EDO HOBETU DEZAKETEN EKINTZETAN EZ SARTU? Hori da politika eta politikariek hortan saihasu beharku zuketean. Alderantziz, (hau bai ez dutela nik defendatzen ezta defendatuko ere), defendatzen dutenak apaizek ez luketela sartu behar politikan, gero dira lehenak gaiztoen politika egiten saiatzen direnak: buruak edo mentalidadeak botxatuz gezurrez edo egurrez, zapaltzaille guztiak bedeinkatuz... Ez ote zuten egin hori nere kasuan Agilerako Konbentura bidali zidatenean ea Espainiako mentalidadeaz kutsatzen nintzen? Edo ta ia urte bat beranduago bidali zidatenean Bolibiako Copacabanara "salveak" kantatzera bertako jendeen aurrean latifizez eta ezer jakin gabe beren izkuntza "guarani" abestu ondoen beraiekin hitz egiteko? Zapaltzaileak zapaltzen uztea da politika eta hori zen nerekin egin nahi izan zutena: denbora galdu kanta eta kanta egiteaz zapaltzaileak bere lanean ari ziren bidenabar. Politika bai gauzak hobetzeko, politika ez gauzak makurrago mantentzeko.

2) Eta bortizkeria edo borroka armatua? Elburu sekular, baiñan zulo batetik ateratzeko bahituta dagoen bati kolpe bat eman behar baldin badiot bahitzaileari, ze? Dogmatismoak horren alde edo kontra ez dira onargarriak. Hori honartu da beti leku guztietan, kultura guztietan edo erligio guztietan (eliza katolikoaren historiari begiratu).

3) Noiz eta nola militante? Ez daukat ez fetxarik ezta nola sartu nintzen. Behin eskatu zidaten (ETako batek) behar zutela elizako giltza multikopista hartu eta eramateko beren leku batera. Zergatik ez lagundu? Elizak zeuzkan besteen bizker lortutakoak nahi aña medio bere propagandatarako. Zergatik ez lagundu propaganda politikoa egiteko behar zuenari? Hor egon zen agian nere lehenengo pausoa militantegintzan. Gero sortu ziren nire lehen kontaktoak, Basauriko Txaturrekin, Surti, Zubiri eta Mirenekin, kartzelan berean egondakoekin. Zabalen sekuestroa langileen borroka babesteko eta bultzatzeko.

4) Frantziako ETAK egindako Asamblada eta bertako partaideak: Pertur, Pegeoto, Urrutikoetxea, Mugika Arregi, Laudioko Navarro, Gazume.....

5) Bizkaiko Langile Frenteko arduradun, kontaktoak nola: Bizkaiko eskuakde gehienetan zegoen arduradun edo kontakto bat, empresa haundienetako liderrei eraman mezua edo solidaritatea (Zabalen sekuestroa ondo ikusia zegoen langleen artean: Altos Hornos, Walko Wilko, General Electrica.....). Zitatik tabernetan, zahar edo neskei nien beldurra...

6) Zarauzen ETako Komite Zentrala, Karrera kontrako atentatua. ETaren propaganda (nire arreba Irene, Perdigo Presbiteroa, Beitia Obispoa). ETaren zatiketa (politiko-militarra, militarra eta Laia (Guipuzkoako fronte langiletik sortua).

7) LAB. Perturren KAS alternativaren proposamena eta LABerena. LAIA eta LAK. BERRIN abokatu laboristak eta beraien beharra arazo laboralak konpontzeko: Luis Mendaza eta Pilar... Lehenengo asambladak: Urbian... Iralako fraillen zinetokian, Alberto Arbeloak idatzitako manifestoak. 1974ko abenduko mobilizazio jendetsua, PTE eta ORT baño gehiago. Zailtasunak langileak antolatzeke eta ETaren kritikak. LAB eta LAKen arteko burruka, Eirbarko enzerrona.

8) Nondik eta zembat diru jasotzen nuen nere bizimodu erdi liberatua egiteko. Peskanovan lan egiñez, goizeko 6tik 9ak arte. 7000 mila pezetakin (60 euro baño gutxiago) ordaintzen zidaten (ikus 1983 finikitoa), 20.000 pezeta pasa nire emazteak garai hartan Solano fabrikari irabazten zituenak baño gutxiago. Hori ere bai: ia egunero eramaten nuen besapean lebatza kongelatu bat etxera, behar bai genuen bizitzeko, gure Errekaldeberriko anaidia mantentzeko. Bidaia nola denak egiten nituen edo trenez edo autobuses ez nuen gastu haundirik.

9) LABen propaganda idatzia. Oso gutxi idazten zen eta idazten zena hasieran (1974ko bukaeran) liralako fraileen multikopistekin eta beranduago (Franco hil ondoren eta kartzela pasa eta frantziatik etorri ondoren) PRINTZEN imprimategian (Alberdi Durangoko Geridiagako ustez pataidea zen hango arduraduna (oroimena etxean).

10) LABeko antolaketatik aparte saihatzen nintzen kultur maillan lanean zebiltzen jendeekin arremanak eukitzen: Sabino, Zearreta, Zuazo... Baita Deustoko edo Sarrikoko estudiantekin harremanak eukitzen.

11) 1975-76-77. Jon Idigoras eta Zubimendi nere anaiaren etxean Frantziatik etorri ondoren. Euba konbentuko Asamblada. Martin Auzmendi eta nire saiakera jendei nolabait kobrarazten hasteko eta antolaketa minimo bat montatzen hasteko. Ikusiz CCOO, ELA eta UGT ari zirela barra-barra jendea afiliatzen. Ez genuen ezer lortu.

12) LABen lehen Asamblada uste dut Lejonako Unibertsidadean. LABen lehen agiria. Kalero etxeko lehen etxe sindikala.

13) Amnistiaren aldeko mobilizazioa, Chimeneas eta Merelas Altos Hornosen.... Hitzaldia Portugaleteko parrokiari ETari buruz...

14) 1978-79... LABen zatiketa, Euskadiko Ezkerra, Ortzi, Bandres,... auzo mugimendua: Begofia Linaza eta Juanjo Palacios...

15) 1982. Errekaldeberriko gertaera. Nere sorterriko etxera.